

ANTONIO TOVAR EUSKALARIAREN OROIPENA ETA HAREN ALARGUNAK EUSKALTZAINDIARI EMANDAKO EUSKAL LIBURUTEGIA

*Jose Antonio Arana Martija,
euskaltzaina - bibliotekaria*

Antonio Tovar Llorente euskalaria Madrilen hil zenean (1985.12.14) "Antonio Tovar oroitzapenetan" izeneko nekrologia idatzi zuen Koldo Mitxelenak eta *Euskera* agerkarian argitaratu zen (1). Hurbiletik eta ikerkuntza munduan ondo ezagutu zuen gure euskaltzain errenteriarrek, hizkuntzalari eta euskalariaren ikuspegitik aztertu zuen lan horretan Tovar jaunaren jarrera eta nolabaiteko emaitza, hark egiten zuen bezala, maisuki eginaz gainera. Baina Euskaltzaindiarentzat, eta euskararen ikerketetarako, hain zuzen, garrantzitsua izan bazen euskalari honen lana, gizalege aldetik estimatua eta, gehiago esango nuke, maitagarria eta maitakorra izan zela aitortu beharko genuke. Hori da, behintzat, nik daukadan bere irudia. Jakituriaren gaintik bazeuzkala gizatasunezko balore handiak, eta sarri askotan gertatzen den bezala, hemen datza izan zituen nahigabeen zioa.

Mitxelenak idatzitakoaz gain, Tovar-en biografia idatzi behar zela-koan nengoen, euskaltzain urgazle eta gero ohorezkoa izandakoak horrenbeste merezi baitzuen. Eta ez da ez edonolakoa gizon honen biografia. Kanpokoa izanik, euskararen eremuan murgildu direnetatik puntarengoa izan zela esan dezakegu. Espainiatik gure kulturara hurbildu zitzaigun lehenetarikoa izan zela esango nuke. Eta lan baliotsuaren eskaintzaz aparte, hara non datorkigun orain beronen euskal liburutegia Euskaltzaindikoko Azkue Bibliotekara. Consuelo Larruzea alargunak, Tovar-ekin bat eginda zegoenak, burutu du azken emaitza honekin bikote honek Euskaltzaindiarekiko zeukan harreman ezin estuagoa.

Antonio Tovar Llorente Valladoliden jaio zen 1911.eko maiatzaren 17an. Notariaren semea zen eta haurrak bi urte edo zituelarik, Elorriorako izendatua izan zen aita, non Antoniok Euskal Herriarekin lehen harremana izan zuen. Herri euskaldun honetako Andra Maria parrokia-

(1) *Euskera*, 1986, I, 249-252.

ren inguruko etxe batean bizi izan zen, baina denbora gutxi egin zuenez aitak notaritza honetan ez zuen euskararik ikasi Antoniok. Hemeretzi urterekin bukatu zuen 1930ean zuzenbideko karrera El Escorial-eko fakultatean. Baina ordurako sortu zitzaion hizkuntzekiko grina, eta grekoa eta alemana ikasi zituen. Alemanian zegoelarik hasi zen Espainiako gerra 1936an eta handik itzuli zen Humboldt-ek sortu zuen unibertsitatearen eredia bizirik zekarrelarik. Baina Hitler-ekiko mirespenak ere nolabait kutsatu zuen eta Francoren alde agertu zen gerran eta gerra ondoko lehen urteetan, Serrano Suñer-en subsekretarioa izan baitzen 1941.eko maiatzaren 17ra arte. Urte berean, Filologia Klasikoan lizentziaduna zelaririk, lortu zuen doktoregoa. Salamancako Unibertsitatean irabazi zuen 1942an Latin katedra eta azken lau urteren zehar emaztegai zuen Consuelo Larruzearekin ezkondu zen urte berean, Tormes ibaiaren hirian hamalau urteko bizitza finkatuz.

Politikaren mundua pixkanaka utziz (2) eta katedraren arduratik aparte, liburuak idazteari ekin zion Tover-ek Salamancako garai hartan. *Vida de Sócrates* izan zen argitara eman zuen lehen liburua (1947) eta latinezko klasikoak aztertuz Virgilioren *Eglogas* olerkien edizio kritikoa paratu zuen. Baina beste hizkuntza zaharrekin ere ardura harturik *Estudio sobre las primitivas lenguas hispánicas* kaleratu zuen Buenos Airesen (1949). Salamancako Unibertsitatearen errektore izendatu zuten 1951ean, eta Joaquín Ruiz Jimenez, Hezkuntza Ministroarekin batera, Alemaniatik ekarri zuen unibertsitate humboldtiarraren eredia nahi izan zuen Espainian finkatu. Errektore zela, hizkuntza indoeuropearrak eta bereziki zeltikoak meneratu zituen eta txikitari ikasi ez zuen euskara ikasten hasi zen Orion ematen zituen udaldietan. Ikusiko dugunez, irakasle izateko haina ikasi zuen, baina irakaskuntzako arloan baino gehiago eman zigun gure hizkuntzaren ikerketa eta eragintza munduan. Hor dugu adibide gisa Larramendi katedra sortzea. Baina hizkuntza klasikoen ildotik jarraitzen zuen eta grekoa noraino meneratzen zuen jakiteko hara hor *Un libro sobre Platón* lekuko (1956). Urte horretako udaberrian errektore karguari uko egin zion, dimisioa aurkeztuz. Francoren jokabide etsipengarriarekin nekatuta, oraingoan bai Espainiako politikari etena eman zion.

Atzerrira jo zuen orduan lasaitasunaren bila eta beste konpromezu barik hizkuntzen munduan murgiltzeko asmoz. Tucumaneko Unibertsitatean eman zuen urte osoko ikastaroa (1958-1959) eta Hego Ameriketako hizkuntzak ikertu zituen. Ipar Ameriketako Estatu Batuetara joan zen gero, Illinoisko Urbana Unibertsitatean zazpi urtetan irakasle izanik (1960-1967). Hemen zegoelarik argitaratu zuen *Catálogo de las lenguas de América del Sur* (1961). Consuelo alargunak dioskunez, 2000 hizkun-

(2) Andrés Trapiello: *Las armas y las letras*. Madrid, Ed. Planeta, 1994.

tza edo sailkatu zituen, tartean prekolonbinoak; euskararen ikerketak biztu omen zuen Tovar-engan hizkuntzalaritza gonparatuaren grina. Hizkuntzalaritzaren arlo hau irakastera etorri zen Alemaniara, Tubingen-eko Unibertsitatera hain zuzen, non irakaskuntzan eta ikerketetan ziharduen hamabi urteren zehar (1967-1979). Hizkuntza gonparatuen katedra hura Ernst Sittig-ek sortu zuen 1925ean eta sortzaile honen ondoko Hans Krahe jubilatu zenean dei egin zioten Tovar jaunari honen hutsunea bete zezan. Estatu Batuetatik Alemaniara zubia egin zuenean izendatu zuten Real Academia Españolako kide (1967). Tubingenen jubilatu zenean 68 urte zituen eta berak esaten zuenez “jubilación germánica” lortu ondoren, 21 urte kanpotik ibilita, Madrilera itzuli zen. Wurtemberg estatuan 1477an sortutako unibertsitateak omenaldia eskaini zion Tovar katedradunari 1979.eko otsailaren 9an, egitasmoan ezaguna dugun Patxi Oroz Arizkuren irakasleak —eta Tovar bezala musikariak— unibertsitateko korallarekin kontzertua eskaini ziolarik (3). Madrilera itzulita Filologia katedran aritu izan zen 1981ean jubilatu arte.

Alemanian egindako lanen eskerronez Goethe saria eman zioten 1981ean. Baina izan zituen eskertze eta omenaldi gehiago ere: Gredos argitaldariai eskaini zion omenaldi liburua 1972an: *Homenaje a Antonio Tovar*. Tubingeneko Unibertsitateak ere *Studia in honorem Antonii Tovar* kaleratu zuen 1984ean. Eta hil ondoren, Koldo Mitxelenak antolatu zuen Bilboko “El Sitio” elkartearen aretoan omenaldia 1986.eko urtarrilaren 20an. Buenos Aires, Munich, Dublin eta Sibiliako unibertsitateek “Doctor honoris causa” izendatu zuten. Ez zuen gutxiago merezi 400 titulu zituen gizon honek, eta 50 hizkuntza ezagutzen zituenak, tartean euskara, jakina. Honako hauek mintzatzeko eta idazteko gai zen Tovar jauna: gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, italiara, portugesa, katalana, latina, greko modernoa, eta Hego Ameriketako matakoa.

Baina ez ziren hizkuntzalaritzako irakaskuntzak eta ikerketak Tovar-en izaera eta jakituria osotzen zutenek. Principe de Vergara kaleko etxebizitzan egon nintzenean, apalategietan zeuden liburuak eta paperak, hormetan dindilizka ikusten ziren diplomak eta egongelan zegoen pianoa ikusi nituenean, humanista baten etxean nengoela konturatu nintzen. Hizkuntzalaritzatik aparte literaturaren kritika ere egiten zuenez egunkari eta aldizkarietan, hau zen Tovar-ek jorratutako arlo bat eta han zeuden eta daude hainbat autoreen idazlan osoak. Egongelako ia erdian oste laburreko pianoak telebistari kentzen zion lehentasuna eta Federico Sopenak idatzi zuenez, zenbat aldiz atera ziren Tovar-en hatzamar eta bihotzetik Chopin, Schumann, Albeniz, Falla eta beste musikagile askoren doinu eta harmoniak. Eta liburuez inguraturik bizi bazen ere, nola

(3) Klaus Niebel: “Homenaje a Don Antonio Tovar”, *Euskera*, 1979, I, 397-400.

ez gogoratu eguneroko langelan, estimu bereziaz, eta mahaitik eskura, euskal liburuak zituela.

Garai baten Francoren alde jokatu zuen honek, eta gerraren osteko lehen urteetan, nola izan zuen euskararekiko interesa eta grina ez da erraz ulertzekoa. Consuelo Larruzea, orain alargunak, dioenari jarraitzen badiogu, orduan emaztegaia zen familiakoei esker sartu zen Tovar euskararen munduan. Consuelo Larruzea Pelaez Gasteizen jaio zen 1913.eko abenduaren 23an. Antonioren arrebena adiskidea zen Valladoliden eta haien bidez ezagutu zuen 1937an gero senarra izatera iritsiko zena. Medina del Campon ezkondu ziren 1942.eko ekainaren 9an. Consueloren aitona, Jose Larruzea, Azkueren adiskidea zen. Abade lekeitiarrak Fueroak ezabatzeaz Gernikako parrokian egin zuen sermoia, 1895.eko uztailaren 21ean, *Jaungoikua eta Foruak* izeneko liburu batean argitaratu zuen, non agertzen den Consueloren aitonak egindako hitzaldia, Fueroen defentsan noski. Euskararekiko atxekimendua aspaldidanik zetorkion bada Larruzea familiari eta lur ona aurkitu zuen gero euskalaria izango zen hizkuntzalariak beste ikerketa batzuetatik zetorkion interesa ereinteko. Baina Filologia munduan sartu zenetik Menéndez Pidal, Azkue, Urkixo eta beste euskalari “zientifikoen” eskutik euskararen ikerketa sakonak egiteko parada izan zuen.

Tovar-ek euskarari buruz idatzi duen guztia jakin nahi duenak Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographiara* jo beharko du. Baina gainbegirada emanda, honako mugarri eta urratsak azpimarratuko nituzke. Hizkuntzen gonparaketaz ikerketak egiten hasi zelarik, euskara eta hizkuntza zeltikoen arteko loturak eman zizkigun *BRSBAP* aldizkarian 1945ean. Eta euskara ikasteari ekin zion urte haietan; ikusiko dugunez, 1947an, Salamancako Unibertsitatean, hogeit hamar urteko ikasleri edo euskara irakasteko gai zen Antonio Tovar. Ondorioz, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1948.eko urtarrilaren 30ean. Urte berean, eta lehen aipaturiko Boletinean argitaratu zuen *Estado actual de los estudios de filología euskérica. La lengua vasca* liburua eman zigun 1950ean (2. argitalpena 1954ean), Filadelfian ingelesera itzulia izan zena 1957an. Mitxelena eta Agud hizkuntzalariekin batera *ASJU* aldizkaria sortu zuen 1953an. *El euskera y sus parientes* liburua 1959koa da eta *The ancient languages of Spain and Portugal* 1961ean New York-en argitaratua. Ordurarte egindako lanengatik, eta Mitxelenak aipatzen zituen aholku eta laguntzengatik, ohorezko euskaltzaina izendatua izan zen 1973.eko maiatzaren 25ean, ondo izendatua, alafedea, hogeit hamar urte lehenago Laramendi Katedra sortu baitzuen Salamancako Unibertsitatean, euskarak orduan pairatzen zuen erasoari zientzia aldetik aurre eginez. *Euskera* agerkarira bidali zituen lanak, hala nola, “Comparaciones tipológicas del euskera” (1977, 449-476), 1980an Euskaltzaindiak antolatu zituen Euskalarien Jardunaldietara ekarriko zuen gai berbera, hain zuzen: “Comparación: Léxico-estadística y

Tipología". Euskarak historian zehar izan dituen arerio eta aldekoak eta orain hizkuntza politikaren bidez duen irtenbidea arakutzen du Tovar-ek *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* liburu ederrean (1980). Larramendiren lana, politika munduan izan zuen eragina ahaztu gabe, aztertu zuen Tovar-ek Donostiako Costa Vasca Hotelean 1984.eko otsailaren 20an eta Bilboko Ercilla Hotelean hurrengo egunean eman zituen hitzaldietan. Urte eta hil bereko 22an Gasteizko Gasteiz Hotelean beste hitzaldi bat eman zuen, azken hau Azkueren lana aztertuz.

Larramendi Katedra aipatu dugu lehentxoago. Bere garaian izan zuen garrantzia kontuan izanik, ez dut uste honetaz behar den beste idatzi denik eta sorkizun hau gure artean aski ezaguna dugunik. Tovar bera da, ene ustez, Katedra honetaz zerbait idatzi duen bakarra (4). Baina euskararen aldeko ekintza honen historia eta emaitzak taiutzeko beste iturri batzuetara jo behar izan dut. Gezurra badirudi ere, gerra osteko garai hartan munduan zegoen euskal katedra bakarra Bordeleko Unibertsitatean Rene Lafon euskaltzainak zuzentzen zuena zen. Haren antzerako bat sortu nahi zuten Joaquin Ruiz Jimenez, Hezkuntzako Ministroak eta Antonio Tovar Salamancako katedradunak. Katedrari izena jarri behar ziotela eta, Manuel Larramendi iruditu zitzairen egokiena. Larramendi, izatez, Salamancako Unibertsitatean Teologia ikasle izan zen (1713-1717) eta ikasketa hauek bukatu ondoren Teologia eta Filosofia irakasle ere (1717-1720 eta 1724-1728). Baina euskarari dagokionetik, Salamancan argitaratu zituen bi liburu entzutetsuenak: *De la antigüedad y universalidad del bascuenze en España* (1728) eta *El imposible vencido* (1729) titulua zeraman gramatika. Ez zegoen egiaz "patroi" hoberik euskarari irakatsi eta hedatu nahi zuen katedrarentzat.

Nik dakidanetik, Katedra honen berri eman zuen lehena "Desperdicios" izenordea zeraman Aureliano Lopez Becerra (1880-1956) kazetari irundarra izan zen 1948an (5). Tovar-en hitz hauek transkribatzen ditu artikuluan:

"A la clase, que es semanal, vienen unas veinte personas. Algunos, profesores de nuestra Facultad de Filosofía y Letras, la mayor parte, estudiantes de la Sección de Filología Románica, en la cual, según el vigente plan de estudios, se puede cursar la lengua vasca, y algunos, estudiantes también de otras Facultades, vascos de nacimiento. Mi mayor satisfacción al dar la clase es la de contar con la asistencia y colaboración de estos vascos, que, naturalmente, saben la lengua mucho mejor que yo y me ayudan para que los ejemplos sean claros y correctos. Leemos y comentamos el famoso librito

(4) "La cátedra Larramendi de la Universidad de Salamanca", *Zumárraga*, 1954, 11-34. "Don Jose Miguel de Barandiaran inaugura la 'Catedra Manuel de Larramendi' en la Universidad de Salamanca", *BIAEV*, 1954, 53-54.

(5) *La Gaceta del Norte*, 1948.02.08, "Miscelánea" sailean.

de Schuchardt "Primitiae Linguae Vasconum" que traducido por el Dr. Yrigaray, de San Sebastián, fue editado por el Colegio Trilingüe de nuestra Universidad. Hacemos también una exposición general de la gramática, y cuando se nos termine el libro de Schuchardt, explicaré algunas poesías de Dechepare, que como es sabido publicó el primer libro en vascuence".

Schuchardt-en liburu hau 1945 urterako prestatuta zeukan Irigarai jaunak, eta Julio Urkixoren aitzinsolas gutuna ere urte bereko abenduan idatzia zen. Irigaraik aitortzen duenez, alemanetik itzulpena egitekoan, Tovar-en laguntza izan zuen; horrek adierazten digu Salamancako euskara irakasleak ondo ezagutzen zuela irakaskuntzarako zerabilen testua. Baina Schuchardt-en liburu hori gaztelaniaz 1947an argitaratua izan zenez, urte horretan hasi zela Tovar euskara ikasketak ematen ziurtatzen digu. Baina 1951an errektore kargua eta ardua hartu zuenean, zaila egiten zitzaion euskarazko klaseekin jarraitzea eta 1952/53 ikasturterako aurkitu zuen nori hutsunea bete, Juan Gorostiaga euskaltzaina hain zuzen. Honen *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596* Salamancako Unibertsitateak argitaratu zuen 1953an, lehenago Caro Baroja, Lafon eta Bouda euskalarien lanak argitaratu zituen eran, 1946an hasita.

Tovar errektore berriak, indarra hartzen zihoan katedra ofizialki inauguratu nahi zuen eta horretarako Jose Migel Barandiaran ikusten zuen gizonik aproposena. Ataungo "Sara" izeneko etxea eraikita zegoen 1952ko martxorako eta herriratua zen Barandiaran, abuztuaren lehen Tovar-ek Larramendi Katedra inauguratzeko gomita egin zionean. Hurrengo urteko urtarrilaren 6an Errege oparia egin zion Barandiaranek Tovar errektoreari zera esanez: urtarrilaren 19an hasita hamabi hitzaldi emango zituela Larramendi katedra inauguratzeko. Baina gaixotasunak jota, burutu ezinean geratu zen asmoa. Hurrengo ikasturtea hasi orduko errepikatu zion Tovar-ek eskaria 1953.eko irailaren 13an. Urriaren 19an emango zuela lehen hitzaldia erantzun zion Barandiaranek irailaren 24ko gutunean. Baina berriz atzeratu zen inaugurazioa. Azkenean, 1953.eko azaroaren 3an inauguratu zuen Jose Migel Barandiaranek Larramendi Katedra, azaroaren 13ra arte hamar hitzaldi emanez. Gai orokorra honako hau izan zen: *Estado actual de los estudios vascos*, eta inguru horretan eguneroko gaiak, "El problema de los orígenes de la lengua vasca", "La cultura material", "Religión y mitología", "Prehistoria" eta abar. Azken egunean desideratum gisa aurkeztu zuen Barandiaranek Euskal Herriko Hizkuntza eta Etnografia Atlas burutu beharra.

Esana da Antonio Tovar-ek errektore izateari uko egin ziola 1956an eta Tucumanera joan zela 1958an. Umezurtz geratu zen Larramendi Katedra. Baina Koldo Mitxelena dioskunez (6). Filologia Klasikoaren ikas-

(6) Patxi Altunaren euskaltzain sarrera egunean, erantzun hitzaldian. *Euskera*, 1981, 2, 617 orr. Ikus: Altuna, Patxi: "Euskaldunak Salamanka'n", *Egan* 1957, 1-2, 67-69.

ketak egiten ari zen Patxi Altuna (1953-1957) eta lizentziatura bukatu ondoren, doktoregoa burutzeko Salamancan jarraitu zuen hurrengo 1957-1958 ikasturtean. Larramendi Katedraren ardura Altunak eramana zuela urte horretan dio Mitxelenak, eta data eta datua baieztatzen dizkit Altunak.

Koldo Mitxelenak, gero *Fonética Histórica Vasca* liburua izango zen gaiaz aurkeztu zuen tesia Madrilen 1959.eko urtarrilaren 26an. Tovar epaimahaikoa zen eta orduko Europako ikerketa mailetara eraman zuela Mitxelenak euskal fonetikaren azterketa esan zuen. Rodriguez Adrados salamancarrak Madrilen, eta ez bere jaioterrian, hizkuntza indoeuropearren katedra sortu nahi zuen. Baina katedra hori Mitxelenak irabazi zuen 1968an eta Salamancan kokatu zen. Orditik, eta Gasteizera 1977an etorri arte, Larramendi katedran hitzaldiak ematen zituen Mitxelenak, Patxi Altunak diostanez. Baina 1976-1977 ikasturtean tesia prestatzen ari izan zen Altuna Salamancan, eta Mitxelenaren eskaria jarraikiz, euskal aditzaz ikasketak eman zituen Altunak Larramendi Katedran urte horretan. Ez dut geroko berririk, baina gaia interesgarria denez, saiatuko naiz datuak biltzen.



Txosten hau amaitzera noa tituluan jarri dudan azken gaia ukituz. Iazko martxoaren (7) 9ko gutunean Jose Maria Satrustegi euskaltzainak berri on bat eman zidan: Antonio Tovar zenaren alargunak Euskaltzaindiari eman nahi ziola senarraren euskal liburutegia. Hurrengo egunean (niretzat urtebetetze egun zorionsuan) harremanetan jarri nintzen aspaldidanik ezagutzen nuen Consuelo Larruzea alargunarekin. Erabaki bezala, apirilaren 5ean, Juan Jose Zearreta laguntzaile izanik, Antonio Tovar zenaren etxean egon ginen eta aipatu alargunarekin erabaki genuen zein izango zen Euskaltzaindiarentzat emaitza. Apirilaren 6an, sei orduko lana izan genuen Azkue Bibliotekako teknikaria den Josune Olabariak eta biok, Consuelo Larruzea eta Chelo Tovar alabarekin, liburuak eta separatak kutxetan sartzen. Tovar-en gutundegia ere guk sailkatzea

(7) Otsaila dio gutunak datan, baina martxoan izan zen.

nahi zuela eta, denak harturik, Bilboko egoitzan utzi genituen apirilaren 7an. Guztira 537 liburu eta separata izan ziren ekarri genituenak eta maiatzaren 28rako prestatu zen Azkue Bibliotekan emaitza oso honen katalogo informatizatua, Zornotzan egun berean egin zen euskaltzain osoen bileran banatu zena. Ale guztiei jarri zitzairen Tovar jaunak erabiltzen zuen "Ex-libris" a, ikerlek jakin dezaten, katalogotik aparte, liburu edo separataren jatorria.

Gutunak taitze lanak denbora gehiago eraman zuen. Milaka ziren jasotakoak, sailkatu ondoren itzultzekoak. Hamar artxibo kutxetan sartu ziren 881 kartazal, bakoitzean idazle baten gutunak sailkatuz. 1993.eko abenduaren leian itzuli zizkion bibliotekariak Consuelo Larruzeari beronen Madrileko etxebizitza berrian (Pechuan, 12) gutun baliotsu guzti hauek, Euskaltzaindiaren artxiborako interesgarriak zirenen fotokopiak egin ondoren. Gutun idazleen zerrenda 24 foliotan bildua izan zen. Gerroztik, beste 66 idazleren gutunak ere sailkatu eta zerrendatu dira.

Bihoakio Antonio Tovar jaunaren alargunari Euskaltzaindiaren eskerrik beroena.